



2014ko KONTU OROKORRA. GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak

Programa: 010 Zerbitzu Orokorrak

2014 Aurrekonturako HELBURUAK:

- Departamentuari esleitutako berdintasun planaren neurriak ezartzea.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua	Adier. Betetzea	Balorazioa
- Kontratazio prozesuetan genero ikuspegia jasotzea.	Genero ikuspegia jasotzen den kontratu kopurua		Altua	Baldintza plegu zehatzetan exekuzio baldintza berezi gisa, izaera sozialeko bete beharrak sartu dira, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasuna bultzatzeko.
- Diru laguntzak emateko prozesuetan generoaren ikuspegia jasotzea.	Genero ikuspegia jasotzen den diru laguntza deialdi kopurua		Altua	Departamentuak deitutako diru laguntza deialdietako programetan laguntzak emateko irizpideetan, proposatutako ekintzetan genero ikuspegia txertatzea baloratu da.
- Sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa proposatzea, beharrezkoa den tokian.	Genero ikuspegia jasotzen den ikerketa eta inkesta kopurua		Altua	Foru bizikleta bideen erabiltzaileei zuzendutako Inkesta aztertu da eta genero ikuspegia kontuan hartuta ekarpenak egin dira, hala nola: galdetegian sartu beharreko aldagai berriak eta hizkuntzaren erabilera ez sexistaren inguruko gomendioak.



B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa		
Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
- Plana burutzeko lanen inguruko proposamen eta jarraipen bilerak koordinatzea.	Altua	Departamentuko ordezkariak parte hartu dute, GFA-k Berdintasunaren II Foru Planaren harira, berdintasun zuzendaritzatik deitutako bileretan. Politikari nahiz teknikariei zuzendutakoetan. Baita ere helburu horretarako deitutako formazio ikastaroetan ere parte hartu dute eta ogasuneko departamentuak EHU-ko lankidetzarekin deituriko bileretan.
- Generoaren ikuspegia kontuan hartuz departamentuko aurrekontu programen analisia koordinatzea.	Ertaina	Orain dela gutxi, departamentuan bertan berdintasun gaiak lantzeko talde bat sortu da "berdintasun unitatea" izenekoak.
- Departamentuaren komunikazio ikus-entzunezkoetan eta idatzietan genero hizkuntza berrikustea.	Altua	Baldintza-agiriak aztertu dira hizkuntza erabilera ez-sexistaren ikuspegitik, erabilera ezegokiak identifikatuz eta bakoitzarentzako alternatibak proposatuz, emakume eta gizonak egoki ikustarazteko helburuz. Baita ere, Gipuzkoa Bizikletaz web gunearen edukia aztertu da genero ikuspegitik. Alegia, hizkuntzaren erabilera ez sexista eta irudi egokiak barneratzeko helburuarekin proposamen ezberdinak egin direlarik.

Oharra: Mugikortasuneko eta bide azpiegiturretako departamentuari berdintasun gaietan laguntza teknikoa emateko 2014ko ekitaldian Era berria enpresaren zerbitzuak kontratatu ziren.



2014ko KONTU OROKORRA. GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak

Programa: 100 Garraioaren Antolamendu eta Sustapena

2014 Aurrekonturako HELBURUAK:

1. Orokorra: mugikortasun eta garraioaren alorrean, aurrera egitea gizon eta emakumeen arteko berdintasun kota handiagorantz.
2. Berezia: errealitatea hobeto ezagutzea, sexu desberdinekoen artean mugikortasunak sor ditzakeen desberdintasunei buruz eskuartean dugun informazioa gehituz (datu kuantitatibo eta kualitatiboak).
3. Gizon eta emakumeen behar espezifikoak eta eskaerak hobeto ezagutzea, mugikortasun eredu espezifiko bidez.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua	Adier. Betetzea	Balorazioa
1.1. Eskuratzea datu estatistikoaren informazioa, sexuen arabera antolatua.	Garraio moduen eta sexuaren arabera joan-etorri buruzko datu-kopurua.	6	5	Datu frogagarriak falta zaizkigu taxi eta beste garraio modu txikietako garraioari buruz.
	Garraio publikoaren erabilerak daraman bilakaerari buruzko datu banakatuen kopurua.	4	4	Azken lau urteetako datuak ditugu herri-arte autobus garraioari buruz.
	Adinaren eta sexuaren arabera txartelen banaketari buruzko datu-kopurua.	4	4	Informazioa lau adin tartetan banatu da : haurrak, gazteak, helduak eta zaharrak.
	Gizonezko eta emakumezko gidari profesionalen buruzko datu-kopurua: sartzeko azterketak eta eman diren txartelak.	2	1	Oraingo ezin dira banakatu emandako txartelei buruzko datuak.
2.1. Genero ikuspegia sartzeko mugikortasunari buruz egin diren azterlanetan.	Azterlan kopurua	3	3	



B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa		
Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila.	Balorazioa
1.3. Herritarren partaidetza prozesuaren garapena eta bukaera (2, 3, eta 4. faseak), Gipuzkoako zati handi batean autobus zerbitzua hobetzeko (56 herri eta 400.000 biztanletik gora).	Handia	Herrietan egin diren bileretan milaka partaide izan dira. Horietatik gehienak emakumeak, eta 5.000 ekarpen baino gehiago jaso ditugu.
Gipuzkoako Bidaiarien Garraio Erregelamendua.		Garraio Kontsortzioak bultzatu badu ere, Aldundi honek Erregelamendua egiten parte hartu du. Erregelamendua onartu aurretik, generoan duen eraginari buruzko azterlana egin da.
Bidaiarien garraio publikoko emakidak.		Bost emakida esleitzeko lehiaketetan, berdintasunaren alorreko berariazko klausulak sartu ditugu.



2014ko KONTU OROKORRA. GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak

Programa: 110 Mugikortasuna

2014 Aurrekonturako HELBURUAK:

1. Generoaren ikuspuntuaren arabera mugikortasuna eskaintzea, bereziki herrialdean emakumeen mugak eta beharrak kontuan hartuz, baita publikoa/ pribatua bereizketa sortzea errazten duten elementuak ere.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adier. Helburua	Adier. Betetzea	Balorazioa

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila.	Balorazioa
1.3. Bizikletaren Estrategian genero ikuspuntua txertatzea.	Egina	
2.2. Bidetegiaren trazaratutako emakumeen ikuspuntutik aztertzea eta egokitzea.	Egina	